

Funtsezko jarduerak

Gure funtsezko jardueren artean, gure bezeroek ondo ezagutzea izango da, beraiek eta haien bezeroek (kontsumitzaileek) izango direlako gure proiektuari erabilpena emango diotenak.

Aplikazioa martxan jarri aurretik diskoteka guztiekin kontaktuan jarriko gara erabilpena izango duen hala ez jakiteko. Haiekin hitz egin ondoren aplikazioa martxan jarriko dugu.

Aplikazioak diskoteken sarrerak erosteko izango da, gure bezeroen (diskotekak) bezeroei (gure kontsumitzaileak) erraztuko diegu sarrerak erosteko metodoa. Baina hori alde batera utzita, aplikazio bertan beste hainbat jarduera desberdin aplikatuko ditugu.



Hala nola, bertan kontsumitzaileek aukera izango dute bere inguruan dituen garraibide desberdinak ikusteko. Hau da, askotan beste herri batera joaten badira diskoteka batera, ez dakite zer nolako garraibide desberdin dauden ezta zer ordutan pasatuko diren, beraz, honekin erraztuko diegu zer motatako garraibide dituzten eskura eta horiek zer nolako ordutegia duten baita.



Bestalde, bertan ere agertuko dira haien inguruan dituzten diskoteka desberdinak. Modu horretan, leku edo herri ezezagun batean dauden pertsonak aukera izango dute hausnartzeko zer nolako lokal desberdin dituzten.



Amaitzeko, lehen esan dugun bezala, diskotekak bertan ateratako argazkiak aplikaziora igotzeko aukera izango dute, horrela kontsumitzaileei erraztuko diegu argazkiak lortzeko metodoa; baita foro bat gehituko dugu haien iritzia edota haien proposamen desberdinak zeintzuk diren jakiteko ere.

